



GOBERNU BATZARRA

2024.09.17

Alkatea:

Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:

Kristina Pelaez Errazkin

Ander Figuerido Zubiria

Ez dira bertaratu:

Estitxu Kortejarena Ugarte

Goiuri Ezeiza Arandia

Aitor Agirresarobe Murgi

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontu-hartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko irailaren hamazazpian, 10:00etan, bigarrenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2024ko uztailaren 30ekoa.
2. Onartzea EHUren eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, kirolak sailean praktikak egiteko.
3. Onartzea HABErekin hitzarmena sinatzea, euskarazko A1 mailako ikasleen dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaile izateko.
4. Onartzea HABErekin hitzarmena sinatzea, euskarazko C1 mailako 16-18 urteko ikasleen dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaile izateko.
5. "24.1 Iurramendi Pasealekua" azpiesparruko urbanizazio proiektuaren lehen aldaketa. Hasierako Onespena.
6. Dekretu hauen berri ematea:
2024/1792 Dekretua: 2024/31 faktura zerrendak.
2024/1793 Dekretua: 2024/33 faktura zerrendak.
2024/1913 Dekretua: 2024/34 faktura zerrendak.



1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO UZTAILAREN 30EKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA EHUREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, KIROLAK SAILEAN PRAKTIKAK EGITEKO.

IKUSIRIK

Lehena.- Euskal Herriko Unibertsitateko Kirolak ataleko teknikaria den Jesus Angel Larrinagak Tolosako Udalarari Iñigo Goikoetxeak praktikaldia Tolosako udalean egin dezan eskatu dio. Praktikaldia hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizio beka baten nahitaezko zati bat da eta Tolosako Udalaren kirol sailean gauzatu nahiko lituzke bekadunak, 2024ko udazkenean.

Bigarrena.- Horretarako, Lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko proposamena egin dute.

KONTUAN HARTURIK

Lehena.- 592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, unibertsitate-ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituena.

Bigarrena.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa erregulatzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeko VI. kapitulua, hitzarmenak erregulatzen dituena.

Hirugarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespina ematea: Udalbatza. Bestaldetik, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 dekretuaren bitartez, lankidetzaren hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

Lehena.- Onartzea Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Tolosako Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmena, udalean praktikak egiteko, honako klausulen arabera:

“1. Programan parte hartuko duen ikaslearen datuak:

IÑIGO GOICOECHEA PELLEJERO and/jn.

NAN: 73276671M

Titulazioa: Hezkuntza mundutik lan arlora igarotzeko programa. Erakundeetan trebetasun bigunak (soft skills) garatzea

2. Entitateko instruktorea:

Arantza Estanga Lasa and/jn.

3. Hezkuntza-esparrutik lan-mundurako trantsizioa Ikastegiko tutorea:

MAITE FUENTES AZPIROZ and/jn.

4. Praktikako programaren arduraduna:

ERLANTZ ALLUR ARANBURU and/jn.

5. Prestakuntza proiektua:

a) Hezkuntza helburuak:

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK, GAITASUN GENERIKOAK, ETA/EDO ZEHARKAKO GAITASUNAK

- Ikasten eta pentsatzen ikasi
- Autonomia eta inizatiba
- Gizalegezko gaitasuna
- Komunikatzeko gaitasuna
- Pentsamendu kritikoa eta sormena
- Hobekuntzarekin konpromisoa eta etengabeko ikasketa
- Komunikatzeko trebetasuna
- Elkarlanerako eta harremanetarako trebezia
- Ekipoan lana egiteko gaitasuna
- Lidergoa izateko gaitasuna



- Erabakiak hartzea eta arazoak konpontzea
- Gatazkak konpontzea
- Autoezagutza eta auto-motibatzea
- Egoera aldakorretan egokitzea
- Aniztasuna errespetatzea
- Konpromiso etikoa eta gizartearekiko konpromisoa

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- Jakintza arloarekin eta praktikaren eremu profesionalarekin lotutako gaitasunak.

b) Egin beharreko jarduerak edo zereginak:

Egin beharreko jardueren edo zereginen deskribapena

- 1 - Zerbitzua ezagutu
- 2 - Zerbitzuak kudeatzen duen jarduerak ezagutu eta parte hartu
- 3 - Zerbitzuko bileretan parte hartu
- 4 - Tolosako kirol instalakuntzak eta haien antolakuntza

6. Jarduerak non egingo diren: Tolosa

7. Programaren iraupena eta dedikazioa.

Orduak guztira: 360

Hasiera eta amaiera data: 2024/10/01 - 2024/12/31

Ordutegia: Zehazteke.

8. Ikasleak praktikara ez joateko aukera izango du azterketak egiteko, hiru egun lehenago instruktoreari dagokion justifikazioa emanez gero. Arrazoi akademikoengatik edo beste era bateko arrazoiengatik joan ezean, ahalik eta lasterren emango die horren berri tutoreari eta instruktoreari, eta tutorearen baimena eskuratu beharko du.

9. Ikasleak bete egingo ditu proposatutako argibideak eta segurtasun neurriak baliabide informatikoak erabiltzean, informazioa eskuratzean eta dokumentuak zaintzean, baita instalazioen segurtasun neurriak ere.

10. Hitzarmen honen sinadurak baimena ematen du sinatu dutenen datu pertsonalak lagatzeko eta erabiltzeko hitzarmen honen helburuetarako soilik, kontuan izanik 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak babesteari



buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/CE Zuzentaraua indargabetu ere egiten duena (datuak babesteko erregelamendu orokorra). Datuak ezin izango dira inolaz ere erabili hitzarmenean eta, hala badagokio, dagokion eranskinean jasota ez dauden helburuetarako. Datu pertsonalak ez dira inoren esku utziko, hitzarmenaren helburuen arreta, garapen, kontrol eta betetze jardueretarako ez bada, eta indarrean dagoen legediak ezarritako kasuetan izan ezik. Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetan sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, mugatzeko eta aurka egiteko, idatzi bat bidalita UPV/EHUren Idazkaritza Nagusira. Gainera, aldeek konpromisoa hartzen dute beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolakuntza arlokoak hartzeko, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta aldatu, galdu edo baimenik gabe erabiliak izan ez daitezen, aintzat haturik unean-uneko teknologia, gordetako datuen ezaugarriak eta baita arriskuak ere, giza jardueratik edo ingurune fisiko naturaletik eratorritakoak.

11. Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute konfidentzialtasuna bermatzeko, erakunde laguntzailearen barne informazioari dagokionez, eta sekretu profesionala gordetzeko. Beraz, ez dute hitzartutako praktikatik lor dezaketen daturik jakinaraziko edo inoren esku utziko, ez praktikak hasi aurretik, ez praktikak egin bitartean ezta amaitu ondoren ere.

12. Aldeen eskubideei eta betebeharreri dagokienez, Ikasleen Kanpo Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUko Arautegian xedatutakoa bete beharko da beti.

13. Praktikak egitean edo hitzarmena betetzean gorabeherak sortzen direnean, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, gorabehera horiek konpontzeaz arduratuko dena. Batzordearen eraketa parekidea izango da. Batzordea eratzean, batzordeburu kargua txandaka beteko da sinatzaileen artean.

14. Praktikak lehenago eteten badira, ikasleak Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko UPV/EHUko Arautegiaren 10. artikuluan jasotako betebeharrak bete ez dituelako, UPV/EHUK edo erakunde laguntzaileak horren berri eman beharko diote Jarraipen Batzordeari, eta horrek praktikak etetearen egokitasunaz erabakiko du, 10 eguneko epean gehienez ere.

15. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmen honen indarraldia bat etorriko da praktika aldiarekin, eta Ikasleen Kanpo Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUko Arautegiaren 5.3 artikuluan araututako gutxieneko baldintzak bete beharko dira beti.

16. Laguntza poltsa guztira: 1500 €. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ezarritako kopurua zuzenean ordainduko dio ikasleari egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez, eta dagozkion zerga betebeharrak bete beharko ditu.



Halaber, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak Gizarte Segurantzaren kotizatze bategiaren bete beharrik bete beharko ditu.”

Bigarrena.- Akordioa Euskal Herriko Unibertsitateari eta praktikaldia burutuko duen ikasleari jakinaraztea.

3. ONARTZEA HABEREKIN HITZARMENA SINATZEA, EUSKARAZKO A1 MAILAKO IKASLEEN DIRULAGUNTZAK KUDEATZEKO ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZATEKO.

IKUSIRIK

BAKARRA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzaburuak txosten teknikoa egin duela, HABEK euskarazko A1 mailarako prestatutako dirulaguntzen harira, proposamen hauekin:

LEHENA.- HABErekin hitzarmena egitea, Aitzol Udal Euskaltegia entitate laguntzaile izan dadin euskara-ikasleek A1 komunikagaitasun-maila lortzeko dirulaguntzetan.

BIGARRENA.- Hitzarmenari buruz iritzia eskatzea Idazkaritzari eta Kontuhartzaitzari.

HIRUGARRENA.- Kontuhartzaitzari eskatzea dagokion espedientea has dezala, prezio publikoen ordenantzan euskaltegiko prezioen aplikazio-arauak egokitzeko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Prozedura honetan honako hau dela aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Txosten juridikoa igorri duela Idazkaritza Saileko teknikariak, eta aldeko txostena egin duela, betiere kontuan harturik txosten juridikoko eta teknikoko baldintzak.

HIRUGARRENA.- Baldintzatutako aldeko txostena egin duela Kontuhartzaitza Saileko teknikariak, aurreko bi txostenek aipatutakoaren bide beretik. Hain justu, ituna sinatzeko, aldaketa bat egin behar da ordenantza fiskaletan, A1 mailako ikasleek



beste era batera ordainduko baitute prezio publikoa. Hori bideratzeko, 2024ORFI0005 espedientea hasi du Kontuhartzailatza Sailak, eta proposamena iraileko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorren aurkeztuko da, eta, haren irizpenarekin, Udalbatzan.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak dauka hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Tolosako Udalaren eta HABEren arteko lankidetzeta-hitzarmena sinatzea, betiere 2024ORFI0005 espedientean abiatutako prozedura onartzeko baldintzapean. Honako eduki hau du hitzarmenak:

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ETA TOLOSAKO AITZOL UDAL-EUSKALTEGIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZKEN HORI ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN DADIN A1EKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN, 2024-2025 IKASTURTEAN.

BILDU DIRA:

Ibone Bengoetxea Otaolea anderea, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, HABEko presidente gisa.
Garbiñe Marzol Ormazabal anderea, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren ordezkaria.

PARTE HARTU DUTE:

Alde batetik, Ibone Bengoetxea Otaolea andereak, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, HABEren izenean eta hura ordezkatzuz, urtarrilaren 10eko 14/2017 Dekretuak xedatutakoaren arabera. Bestetik, Garbiñe Marzol Ormazabal andereak, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren legezko ordezkari gisa, HABEko euskaltegien erregistroan ageri denez.

Alderdi biek hitzarmen hau izenpetzeko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote



elkarri, eta, hori dela-eta, honako hau

ADIERAZI DUTE:

1.– *HABEk euskara sustatzeko ekintzak eta programak bultzatzen ditu, euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsoneri laguntzeko neurriak jarritz.*

2.– *HABEko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzen deialdia onetsi zen, zeinaren xedea baita bultzatzea A1eko ikasleak euskara ikastera. Prozeduraren organo instrukziogilea eta kudeatzailea HABEko ikuskatzailetza arloa izango da, eta ebazteko arduraduna, HABEko zuzendaria.*

3.– *Deialdi horretako zazpigarren oinarriak erakunde laguntzaileekin aritzeko aukera aurreikusten du, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.*

4.– *Erakunde laguntzaileek kudeatu eta izapidetuko dituzte ikasle onuradunek egindako eskaerak.*

5.– *Erakunde laguntzaileek neurriak hartuko dituzte, dirulaguntzaren onuradunek dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.*

HORREGATIK GUZTIAGATIK, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 12., 13., 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik eta HABEko zuzendari nagusiaren 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren zazpigarren oinarriari jarraikiz, bi aldeek **HITZARMEN HAU SINATZEA ADOSTU DUTE**, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– *Hitzarmen honen xedea da HABEko zuzendariaren eta Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaren bidea ezartzea, A1eko ikasleek ikastaroetan parte hartzeagatik, 2024-2025 ikasturtean jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko. Lankidetzaren 2024-2025 ikasturterako da eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean eman daitezkeen laguntzak kudeatzeko.*

Bigarrena.– *Erakunde laguntzailearen betebeharrak*

1. *Erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da HABEko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzea (Q87 aplikazioaren bidez) eta HABEko zuzendariaren kontura jardutea.*

2. *Erakunde laguntzaileak hiru epe izango ditu HABEri dirulaguntza ezarriko zaien ikasleen eskari guztien zerrenda ziurtatua eta agiri osagarriak aurkezteko. Horretarako, erakundelaguntzaileak Q87 aplikazio informatikoan igo beharko ditu datuak eta agiriak. Hiru epe-muga hauek izango dira (HABEko zuzendari nagusiaren abuztuaren 30eko Ebazpenaren zazpigarren oinarriaren laugarren apartatuaren arabera):*



- 2024ko azaroaren 15a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena abenduaren 20a baino lehen gauzatu ahal izateko).
 - 2025eko apirilaren 11 (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena maiatzaren 23a baino lehen gauzatu ahal izateko).
 - 2025eko irailaren 10a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena urriaren 17a baino lehen gauzatu ahal izateko).
3. Erakunde laguntzaileak eskaria egin duen ikasleak lehendik deialdi honetan oinarrituta beste eskaerarik egin ez duela egiaztatuko du.
4. Trebetasunen batean aurrerapen bat lortu duten ikasleen zerrenda emango dio HABEri euskaltegiko zuzendariak bi epetan:
- 2025eko uztailaren 15erako 2024ko urritik 2025eko ekainera arte aritutako ikasleen zerrenda.
 - 2025eko urriaren 15erako 2025eko uztailetik irailera arte aritutako ikasleen zerrenda.

Hirugarrena.– Dirulaguntza ikasleari emango zaio, matrikularen zenbatekoa ia osotasunean izango baitu diruz lagungarria (gehienez 330 ordu aurrez aurreko ikastaroetan eta 750 euro autoikaskuntza), salbu matrikula egitean ordainduko duen orduko-tasa: 0,60 euro. Horretaz gain, ikasleak matrikulatzeko unean ikastaro bera egiteagatik beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, HABEren dirulaguntza gutxitu egingo da kopuru berean. Ikaslearen matrikularen prezioaren gainerako zatia, hau da, ikaslearentzako dirulaguntza, erakunde laguntzailearen bidez kudeatuko da eta erakunde laguntzaileak jasoko du ikastegi bakoitzean HABEko zuzendariak 2024ko abuztuaren 30ean onartutako Ebazpenaren 7.4 oinarriaren, bederatzigarren oinarriaren eta hamargarren oinarriaren ildotik.

Laugarrena.– Hiru euro ezarriko dira konpentsazio ekonomiko gisa erakunde laguntzailearen alde, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko.

Bosgarrena.– Aldeek datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete behar dute, onuradunei buruz lortutako datuei dagokienez, eta haiek eman beharreko baimena eman behar diete datuok erabiltzeko.

Seigarrena.– Hitzarmen honek urtebete iraungo du sinatzen den egunetik aurrera, eta ez da modu automatikoan luzatuko. Hitzarmen honen xedapenak guztiz edo partez aldatu ahalko dira, aldeek hala adosten badute; halaber, aldeetarik edozeinek salatu ahalko du hitzarmena, hiru hilabete lehenago jakinarazita, eta hala gertatuz gero, aldeek hitzarmenaren dute konpromisoari eutsiko dietela onuradunei emaniko laguntzen aldi guztia bukatu arte.

Zazpigarrena.– Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Zortzigarrena.– Araubide juridikoa. Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.



Hitzarmen honetan aurreikusita ez dauden gaietan, bi lege hauetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute digitalki, sinaduran ageri den datan.

*Erakunde laguntzailearen ordezkaria
Garbiñe Marzol Ormazabal*

*HABEko presidentea
Ibone Bengoetxea Otaolea*

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan, 19/2013 Legearen 8.1. artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Kontuhartzaitza Sailari, eta Euskara eta Hezkuntza Sailari.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek indarrean sartzea Tolosako Udaleko Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza behin betiko izaeraz aldatu ondoren.

4. ONARTZEA HABEREKIN HITZARMENA SINATZEA, EUSKARAZKO C1 MAILAKO 16-18 URTEKO IKASLEEN DIRULAGUNTZAK KUDEATZEKO ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZATEKO.

IKUSIRIK

BAKARRA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak txosten teknikoa egin duela, HABEk C1 mailako 16-18 urteko ikasleentzat jarritako dirulaguntzen harira, proposamen hauekin:

LEHENA.- HABEekin hitzarmena egitea, Aitzol Udal Euskaltegia entitate laguntzaile izan dadin 16-18 urteko ikasleek C1 komunikagaitasun-maila lortzeko dirulaguntzetan.

BIGARRENA.- Hitzarmenari buruz iritzia eskatzea Idazkaritzari eta Kontuhartzaitzari.

HIRUGARRENA.- Kontuhartzaitzari eskatzea dagokion espediente has dezala, prezio publikoen ordenantzan euskaltegiko prezioen aplikazio-arauak egokitzeko.



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Prozedura honetan honako hau dela aplikatu beharreko araudia:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena.

BIGARRENA.- Txosten juridikoa igorri duela Idazkaritza Saileko teknikariak, eta aldeko txostena egin duela, betiere kontuan harturik txosten juridikoko eta teknikoko baldintzak.

HIRUGARRENA.- Baldintzatutako aldeko txostena egin duela Kontuhartzailatza Saileko teknikariak, aurreko bi txostenek aipatutakoaren bide beretik. Hain justu, ituna sinatzeko, aldaketa bat egin behar da ordenantza fiskaletan, C1 mailako 16-18 urteko ikasleek beste era batera ordainduko baitute prezio publikoa. Hori bideratzeko, 2024ORFI0005 espedientea hasi du Kontuhartzailatza Sailak, eta proposamena iraileko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrean aurkeztuko da, eta, haren irizpenarekin, Udalbatzan.

LAUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, alkateak dauka hitzarmena sinatzeko eskumena. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenak baldin badira. Horrenbestez, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta HABEren arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, betiere 2024ORFI0005 espedientean abiatutako prozedura onartzeko baldintzapean. Honako eduki hau du hitzarmenak:

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN



(HABE) ETA TOLOSAKO AITZOL UDAL-EUSKALTEGIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZKEN HORI ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN DADIN C1C1 HELBURU DUTEN 16-18 URTEKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN, MAILA JAKIN BATETIK ABIATUTA, C1C1 KOMUNIKAGAITASUN-MAILA HELBURU DUTEN IKASTAROAK 2024-2025 IKASTURTEAN EGIN DITZATEN.

BILDU DIRA:

Ibone Bengoetxea Otaolea anderea, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, HABEko presidente gisa.

Garbiñe Marzol Ormazabal anderea, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren ordezkaria.

PARTE HARTU DUTE:

Alde batetik, Ibone Bengoetxea Otaolea andereak, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, HABEren izenean eta hura ordezkatzuz, urtarrilaren 10eko 14/2017 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Bestetik, Garbiñe Marzol Ormazabal andereak, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren legezko ordezkari gisa, HABEko euskaltegien erregistroan ageri denez.

Alderdi biek hitzarmen hau izenpetzeko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, hori dela-eta, honako hau

ADIERAZI DUTE:

1.- HABEk euskara sustatzeko ekintzak eta programak bultzatzen ditu, euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsoneri laguntzeko neurriak jarritz.

2.- HABEko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzen deialdia onetsi zen, zeinaren xedea baita bultzatzea 16-18 urteko ikasleek erakunde laguntzaileetan C1C1 komunikagaitasun-maila lortzeko prestakuntza hartzea. Prozeduraren organo instrukziogilea eta kudeatzailea HABEko ikuskatzailetza arloa izango da eta ebazteko arduraduna, HABEko zuzendaria.

3.- Deialdi horretako zazpigarren oinarriak erakunde laguntzaileekin aritzeko aukera aurreikusten du, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.

4.- Erakunde laguntzaileek kudeatu eta izapidetuko dituzte ikasle onuradunek egindako eskaerak.

5.- Erakunde laguntzaileek neurriak hartuko dituzte, dirulaguntzaren onuradunek dirulaguntzak emateko baldintzak (adina, 2023-2024 ikasturtean dirulaguntza lerro honetan dirulaguntzarik jaso ez izana, ordainketa ziurtatzen duen ordain-agiria, ikastaroaren eta ikaslearen, C1C1 helburu-maila eta ikaslearen abiapuntu-maila jakin bat, bereziki) betetzen dituztela bermatzeko.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak 12., 13., 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik eta HABEko zuzendari nagusiaren



2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren zazpigarren oinarriari jarraikiz, bi aldeek **HITZARMEN HAU SINATZEA ADOSTU DUTE**, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen xedea da HABEko zuzendariaren eta Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia erakunde laguntzailearen arteko lankidetzeta-bidea ezartzea, C1C1 helburu-maila eta abiapuntu-maila jakin bat duten 16-18 urteko ikasleek erakunde laguntzaileak antolatuko dituen C1C1 komunikagaitasun-maila helburu duten ikastaroetan parte hartzeagatik, 2024-2025 ikasturtean jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko.

Lankidetzeta 2024-2025 ikasturterako da eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean eman daitezkeen laguntzak kudeatzeko.

Bigarrena.– Erakunde laguntzailearen betebeharrak

1. Erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da HABEko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 30eko Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzea (Q87 aplikazioaren bidez) eta HABEko zuzendariaren kontura jardutea.

2. Erakunde laguntzaileak hiru epe izango ditu HABEri dirulaguntza ezarriko zaien ikasleen eskari guztien zerrenda ziurtatua eta agiri osagarriak aurkezteko. Horretarako, erakunde laguntzaileak Q87 aplikazio informatikoan igo beharko ditu datuak eta agiriak. Hiru epe-muga hauek izango dira (HABEko zuzendari nagusiaren abuztuaren 30eko Ebazpenaren zazpigarren oinarriaren laugarren apartatuaren arabera):

– 2024ko azaroaren 15a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena abenduaren 20a baino lehen gauzatu ahal izateko).

– 2025eko apirilaren 11 (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena maiatzaren 23a baino lehen gauzatu ahal izateko).

– 2025eko irailaren 10a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena urriaren 17a baino lehen gauzatu ahal izateko).

3. Trebetasunen batean aurrerapen bat lortu duten ikasleen zerrenda emango dio HABEri euskaltegiko zuzendariak bi epetan:

– 2025eko uztailaren 15erako 2024ko urritik 2025eko ekainera arte aritutako ikasleen zerrenda.

– 2025eko urriaren 15erako 2025eko uztailetik irailera arte aritutako ikasleen zerrenda.

Hirugarrena.– Dirulaguntza ikasleari emango zaio, matrikularen zenbatekoa ia osotasunean izango baitu diruz lagungarria, salbu matrikula egitean ordainduko duen orduko-tasa: 0,20 euro. Horretaz gain, ikasleak matrikulatzeko unean ikastaro bera egiteagatik beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, HABEren dirulaguntza gutxitu egingo da kopuru berean. Ikaslearen matrikularen prezioaren gainerako zatia, hau da, ikaslearentzako dirulaguntza, erakunde laguntzailearen bidez kudeatuko da eta erakunde laguntzaileak jasoko du ikastegi bakoitzean HABEko zuzendariak 2024ko abuztuaren 30ean onartutako Ebazpenaren 7.4 oinarriaren, bederatzigarren oinarriaren eta hamargarren oinarriaren ildotik.

Laugarrena.– Hiru euro ezarriko dira konpentsazio ekonomiko gisa erakunde laguntzailearen alde, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko.



Bosgarrena.– Aldeek datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete behar dute, onuradunei buruz lortutako datuei dagokienez, eta haiek eman beharreko baimena eman behar diete datuok erabiltzeko.

Seigarrena.– Hitzarmen honek urtebete iraungo du sinatzen den egunetik aurrera, eta ez da modu automatikoan luzatuko.

Hitzarmen honen xedapenak guztiz edo partez aldatu ahalko dira, aldeek hala adosten badute; halaber, aldeetarik edozeinek salatu ahalko du hitzarmena, hiru hilabete lehenago jakinarazita, eta hala gertatuz gero, aldeek hitzematzen dute konpromisoei eutsiko dietela onuradunei emaniko laguntzen aldi guztia bukatu arte.

Zazpigarrena.– Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Zortzigarrena.– Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dauden gaietan, bi lege hauetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute digitalki, sinaduran ageri den datan.

Erakunde laguntzailearen ordezkaria
Garbiñe Marzol Ormazabal

HABEko presidentea
Ibone Bengoetxea Otaolea

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udalaren Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan, 19/2013 Legearen 8.1. artikuluan b) atalean xedaturikoarekin bat.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Kontuhartzaitza Sailari, eta Euskara eta Hezkuntza Sailari.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek indarrean sartzea Tolosako Udaleko Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantza behin betiko izaeraz aldatu ondoren.



5. "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Udabatzak 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (2021eko irailaren 10eko GAO, 174. zk.)

BIGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urriaren 13an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko Hirigintzako Jarduketa Programaren Testu Bategina (2021eko urriaren 29ko GAO, 208. zk.).

HIRUGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko apirilaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruaren urbanizazio-proiektua (2022ko apirilaren 29ko GAO, 80. zk.).

LAUGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko ekainaren 28an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruaren birpartzelazio-proiektua (2022ko uztailaren 5eko GAO, 127. zk.). Hutsen zuzenketa eman zen azpiero horretako jabe guztiek osatutako Hitzarmen Batzordeak sustatua (2022ko uztailaren 11ko GAO, 131. zk.).

BOSGARRENA.- 2024ko abuztuaren 8an Tolosako Udaleko jarduneko alkate-udalburuak, 2024/1821 Dekretua egin zuen honakoa ebatziz: hasierako onespena ematea «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen duen dokumentuari.

SEIGARRENA.- 2024ko uztailaren 9an «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko ituntze-batzarrak, Asier Lanceta Vicentek ordezkaturik, (2024-9175, 9177, 9180, 9182, 9183, 9184 sarrera zenbakiekin), «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruaren Urbanizazio Proiektuaren aldaketa-dokumentua izapidetzeko eskaera eta dokumentu atxikia aurkeztu zuen.



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2009/03/31 GAO 60 zk.).
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua.
- Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamendua.
- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- Gainontzeko indarreko araudi aplikagarria.

HIRUGARRENA.- 2024ko abuztuaren 23an, hirigintza buruak egindako txostenean (JM24_061), besteak beste, jasotakoa:

<<(…) **BIGARRENA.- Espedientearen azterketa teknikoa:**

1.- TXOSTENAREN HELBURUA:

Txosten honen helburua da, aurkeztutako Urbanizazio Proiektuaren Aldaketa aztertzea, hasierako izaeraz onartu aurretik.

2.- DOKUMENTUAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK:


Laburbilduz, proiektu honek jasotzen dituen aldaketak hauek dira:

1. Jarduketa-eremuaren ipar-mendebaldean dagoen horma aldatzea.
2. Plazan haurrentzako jolasak egiteko proiektatutako hormak eta eskailerak aldatzea. Igogailua jartzea puntu horretan.
3. Oinezkoentzako pasabide bat mugitzea eremuaren hego-ekialdean dagoen biribilgunean.
4. Berdeguneko malda bat landareztatzea eta igogailu berria eta egoitza komunikatuko dituen bide bat sortzea.



Plano honetan ikusten dira eragindako puntuak.

Egin nahi diren aldaketetatik garrantzitsuena 2. Aldaketa da. Izan ere gune horretan sortuko den espazio publikoa eta honen eta berdegunearen arteko lotura asko hobetzen den aurreko proiektuarekiko.



Beste 3 aldaketak oso txikiak dira



3.- AURKEZTUTAKO AGIRIAK ETA HAUEN EGOKITASUNA

2024ko uztailaren 9an aurkeztutako dokumentuaren atalak honakoak dira:

DOCUMENTO Nº 1- MEMORIA

1. MEMORIA

ANEJOS A LA MEMORIA:

- ANEJO Nº 1: Características principales del Proyecto
- ANEJO Nº 2: Topografía
- ANEJO Nº 3: Estudio geotécnico
- ANEJO Nº 4: Trazado
- ANEJO Nº 5: Estructuras
- ANEJO Nº 6: Instalaciones
- ANEJO Nº 7: Plan de obra
- ANEJO Nº 8: Justificación de precios
- ANEJO Nº 09: Cumplimiento de la Normativa de Accesibilidad
- ANEJO Nº 10: Estudio de gestión de residuos
- ANEJO Nº 11: Estudio de seguridad y salud

DOCUMENTO Nº 2.- PLANOS

DOCUMENTO Nº 3.- PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

DOCUMENTO Nº 4.- PRESUPUESTO

- 1.- MEDICIONES
- 2.- CUADROS DE PRECIOS
- 3.- PRESUPUESTO
- 4.- RESUMEN DE PRESUPUESTO

Proiektua osatzen duen dokumentazioa nahikoa eta zuzena da urbanizazio-proiektu bat izapidetzeko

4.- URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMAN JASOTAKO FASEAK

2024ko abuztuaren 8an hasierako onspena jaso zuen UJP-ren aldaketak eta bertan zehazten ziren urbanizazio faseak ez datoz bat aurkeztu den Urbanizazio Proiektuarekin. Beraz, **Urbanizazio Proiektua zuzendu egin beharko da UJP-ren aldaketan jasotako faseetara egokitzeko.**

5.- BALDINTZATZILE GAINJARRIAK ETA TXOSTEN SEKTORIALAK:

Planari behin betiko onspena emateko honako aldeko txosten sektorialak beharko dira:

- GI-2130 errepidearen babes-eremuan egoteagatik GFAko Bide Azpiegituretako baimena.

6.- UDAL INGENIARIEN TXOSTENAK

Azpiegituren, lorezaintzaren, argiteria publikoaren, hiri-altzarien, e.a.-en inguruan Udaleko obra publikoetako ingeniari teknikoaren eta argiteriaren arduradunen txostenetara bideratzen da.



ONDORIOA

Txosten honetan jasotakoan oinarrituta, **ALDEKO txosten BALDINTZATUA** ematen da eta honakoa proposatzen da:

LEHENENGOA: 24.1. Iurremanedi Paselakua azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren aldaketari hasierako onespena ematea proposatzen da honako baldintzak betetzekotan:

- Behin betiko onespena emateko honakoak bete beharko dira:
 1. Urbanizazio Proiektua zuzendu egin beharko da UJP-ren aldaketan jasotako faseetara egokitzeko.
 2. GI-2130 errepidearen babes-eremuan egoteagatik GFAko Bide Azpiegituretako baimena beharko da.
 - Gainontzean Udaleko obra publikoetako ingeniari teknikoaren eta argite-riaren arduradunaren txostenak kontuan hartu beharko dira.>>

LAUGARRENA.- 2024ko irailaren 6an, udal teknikariak egindako txostenean (IM24_024), besteak beste, jasotakoa:


<<(...)AZTERKETA TEKNIKOA

XEDEA

Txosten honen helburua 24.1. Iurramendi Paselakua azpiesparruko Urbanizazio Proiektu eraldatuan eginiko aldaketak aztertzean datza.

ALDAKETA NAGUSIAK

1. Ipar mendebaldeko horma aldatzea
2. Haur jolasak dituen plazan hormak eta eskailerak aldatu eta igogailu bat jartzea
3. Hego-ekialdeko biribilgunean oinezko pasabide bat lekualdatzea
4. Iurramendiko egoitzako mendi-hegala landareztatu eta igogailua eta egoitza lotzen dituen bide bat sortzea



IRISGARRITASUNA

Eginiko aldaketek honela eragin dute irisgarritasunean:

1. eremua: hormaren diseinua aldatzean, oinezkoentzako pasabidea handitu egin da.
2. eremua: diseinu berrian eskailerak aldatu, igogailu bat jarri, goiko aldean plazatxo bat sortu eta beheko plazaren diseinua zertxobait aldatu da.
3. eremua: Oinezko pasabidea biribilgunera hurbilduta, pasabidearen erdian biribilgunearen irteerako irlatxoan kokatutako babeslekua izango du.
4. eremua: Sorturiko ibilbide berriak 2 metroko zabalera eta todounozko zorua izango du. Malda ez da zehazten ordea.



Proiektuko memoriaren 3. puntuan Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen irisgarritasun araudia betetzen dela ziurtatzen da. Irisgarritasuna betetzeari buruzko 9. Eranskina gehitu dute.

Dena den, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen 68/2000 dekretuaren, 2. eranskineko 3.7 ataleko 4. puntuak honela dio:

“Eskailera guztiak bi alboetarako eskubanda bikoitz batez hornituko dira (...). Eskaileraren zabalera 2,40 m-tik gorakoa bada, horrez gain bitarteko eskubandak jarriko dira.”

Diseinatutako eskaileraren zabalera 2,5 metrokoa da ia luzera guztian zehar.

Eta 68/2000 dekretuaren 2. eranskineko 3.10 ataleko 2. puntuak honela dio:

“Eskailera-atal eta arrapalen hasiera eta amaiera eskuz antzemateko adierazle gisa, eskubandak 45 cm-tan luzatuko dira beren ertzetan”

Orokorrean, harturiko neurriek irisgarritasuna hobetzen dute baina eskubandei loturiko zuzenketak egin beharko dira.

AZPIEGITURAK

24.1. Iurramendi Pasealekua azpiesparruko Urbanizazio Proiektu eraldatuan, jarraian zerrendatutako azpiegituretan ez da inolako aldaketarik egin, onartutako proiektuko sare berdina mantenduaz:

- Ur-hornidura sarea
- Saneamendu sarea
- Gasa
- Telekomunikazio sarea

Aldatutako proiektuan, euri-uren, energia elektrikoaren eta argiteriaren sareetan egin dira aldaketak. Energia elektrikoaren zein argiteriaren sareei buruzko txostena udaleko argiteriaren arduradunak egingo duenez, jarraian euri-uren sarean eginiko aldaketak aztertuko dira:

Euri-uren sarea:

Aldatutako proiektuak euri-uren hiru sare berri planteatzen ditu:

- 4.2-Pn4.1, zeinari igogailuaren zuloa eta transformazio zentroaren sarrerako sareta konektatuko baitzaizkio.
- Pn4.10-Pn4, eskaileraren goiko aldeko hustubideak konektatzeko balio duena. Transformazio zentroko patio ingeleseko hustubidea ere izango da.
- Hego-ekialdean planteatutako oinezkoentzako pasabidean, goratua denean, eten egingo da lehendik dagoen rigola. Lehendik dagoen euri-uren kutxeta batekin konektatuko duten hustubideak instalatzea planteatzen da.

Aipaturiko sare berriez gain, eraikiko diren hormetan aldaketak egin direnez, horien drainatze-hoditeria ere diseinu berrira egokitu da.




Euri-uren sareko aldaketak:


Hasierako proiektua



Aldatutako proiektua



Hasierako proiektua



Aldatutako proiektua

Instalakuntzei buruzko 6. eranskineko euri-urei buruzko 2. atalean ez dira sare honen eguneraketak egin. Sare berrien emari eta abiadurak gehitu beharko dira.

URBANIZAZIO-ELEMENTUAK, MATERIALAK, HIRI-ALTZARIAK ETA ERAIKUNTZA SOLUZIOAK

Atal honetan, proiektu eraldatuan eginiko aldaketetarako zehaztutako materialak, hiri ekipamenduak eta eraikuntza-soluzioak, Tolosako Udalaren irizpideen arabera, egokiak diren aztertzen da.

Materialak

Zoladurak:

Espaloiak:	Tolosako baldosa hidraulikoa
Eskailerak:	Hormigoi aurrefabrikatuzko mailak
Galtzadak:	Asfaltozko aglomeratua
Bidegorriak:	Pigmentatutako asfaltozko aglomeratua
Galtzadako zintarria:	Granitoa 25x15
Lorategiko zintarria:	Granitoa 20x10 (Aurrekontuan hormigoizkoa)
Rigolak eta kunetak:	Hormigoizkoak
Lurramendi egoitzara doan bidea	



Zorua	Todo uno konpaktatua 15cmko lodieran
Zintarria	Akazia egurrezko enborra
Gradak	Hormigoi ikusi testurizatua
Graden eserlekuak	Autoklabean tratatutako haritz-egurra
Graden atzeko eta eskailera berrien	Pinu azal txikitua
ondoko ezpondan	

Metal-arotzeria

Barandak:	Altzairu herdogaitzezkoak
-----------	---------------------------

Seinaleztapena

Bertikala:	Egungo seinaleak birkolokatuko dira
Horizontala:	Pintura termoplastikoa eta bi osagaiko pintura

Igogailua

Igogailuaren estaldura	Stadip motako segurtasuneko beira laminarra
------------------------	---

Zintarriak, denak, granitozkoak izan behar dira, planoetan adierazten den bezala. Urbanizazio proiektuan zehazten diren gainerako materialak inguruan dauden materialekin bat datoz, eta egokiak dira.

Hiri ekipamendua

Haur parkeak: Aldaketarik gabe

Hiri-altzariak

Hiri altzariei dagokienez, bizikleta-aparkalekua kokalekuz aldatu eta gradak sortu dira haur-parkearen plazan. Bizikleta-aparkalekuaren kokaleku berria egokia da. Graden sekzio edo definizio zehatzago baten beharra dago *Eraikuntza soluzioak* atalean aipatzen den moduan.

Lorzaintza

Proiektu eraldatuan sakonago zehaztu da lorzaintzako esku-hartzei buruzko informazioa. Horrez gain, lurramendiko egoitzako mendi-hegala landareztatuko da.

ZUHAITZAK	Carpinus betulus "Fastigiata" 14/16 cm-ko zirkunferentzia
	Prunus x yedoensis 12/14 cm-ko zirkunferentzia
	Prunus x yedoensis 14/16 cm-ko zirkunferentzia
	Prunus x yedoensis 10/12 cm-ko zirkunferentzia
	Gingko biloba 14/16 cm-ko zirkunferentzia
	Corylus avellana C35L 125/150
	Acer palmatum 175/200
	Acer palmatum 125/150
	Quercus robur 10/12
	Fagus sylvatica 12/14

ZUHAIKKAK	Laurus nobilis C15L 150/175 cm-ko altuera
-----------	---



Prunus lusitanica C15L cm-ko altuera
Hydrangea paniculata "Limelight" C10L 125 cm-ko altuera
Muehlenbeckia complexa C3L

Aurreko proiektuarekiko aldaketak haur-parkearen plazan izan dira, bertako diseinua aldatzearen ondorioz. Horrez gain, lurramendi 23 parean zuhaitz bat kendu da, farolaren parekoa.



Hasierako proiektua



Aldatutako proiektua

Zehazten diren zuhaitz eta zuhaixken espezieak egokiak dira. Planoetan adierazten diren lorezaintzako espazioak eta kokapenaren antolamendua egokiak dira.

Igogailua:

8 pertsonarentzako edukieradun, 630 kg-ko karga-igogailua instalatzea proposatu da. Kristalezko ingurutzaila izango du, kabina kanpotik ikustea erraztu eta segurtasuna handituz. 4,20 metroko kota-aldea gaindituko du eta 180 °-ko bi ontziratze izango ditu.

Proposatutako igogailuaren ezaugarriak egokiak dira eta diseinua ondo egokitzen da ingurura. Dena den, igogailuaren bi sarrera-irteeratan igogailuaren instalakuntzak eta erabiltzaileak euri-uretatik babestuko dituen estalpe baten falta sumatzen da.

Transformazio zentroa: Eskaileren diseinu berriarekin, transformazio zentroa eskailera azpira pasa da. Kokaleku berria ondo egokitzen da ingurura.

Eraikuntza soluzioak

Ipar mendebaldeko horma aldatzea

Oinezkoen eremua handitzeko, ipar mendebaldeko horma horren oinplanoko trazadura aldatzea aurreikusten da aldatutako proiektuan. Horma berriaren gehieneko altuera 3,35 metrokoa da.

Haur jolasak dituen plazan hormak eta eskailerak aldatzea

Aldatutako proiektuak, terrazadun horma multzoaren ordez, altuera aldakorreko horma bakarra jarriko du, transformazio zentroa jartzeko sartune batekin. Eskailerak hormaren atzealdetik igaroko dira.

9-1etik 9-5rako planoek, "Fabrika obrak", definitzen dituzte eraikiko diren eustormak. Eraikiko diren eustorma guztiak hormigoi armatuzko mentsula-horma drainatuak dira, hainbat motatan sailkatuta: 2,5m / 3,35m / 4,5m / 5,6m. Hormen aurreko alderako ageriko hormigoizko akabera testurizatu izango da. Udalari kontsulta egingo zaio,



exekutatu aurretik, aukeratu beharreko testurizazio motari buruz.

Proposamen berrian, transformazio zentroa eskaileren eta igogailuaren aurrean sortuko den plazatxoaren azpian kokatzen da. Horri lotuta, transformazio zentroaren gaineko forjatuaren definizio zehatzagoaren falta sumatzen da. Eskaileren hasierako zatiari eusteko eraikiko den altuera gutxiko hormatxoaren definizioa ere falta da.

04.5 *Sekzio tipoak* planoko S5a izenarekin irudikatutako sekzioa S6ari dagokiona dela dirudi. 5. sekzioaren irudia gehitzea falta da. Bestek beste, bertako gradaren altxaeren beste definiziorik ez dagoelako.

PROPOSAMENA

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, eta txosten honetan azaltzen diren argudioetan oinarrituta, honakoa proposatzen da:

LEHENENGOA: 24.1. Iurramendi Pasealekua azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren aldaketari, aztertutako sareei eta gaiei dagokionean, hasierako onespena ematea, beti ere azterketa teknikoan adierazitako informazioa jasotzeko eta eskatutako hobekuntzak gehitzeko baldintzapean.

Behin betiko onespena emateko honakoak bete beharko dira:

- Eskubanden diseinua 68/2000 dekretuaren 2. eranskineko 3.7 ataleko 4. eta 3.10 ataleko 2. puntuek ezarritakoa betetzeko egokitu beharko da.
- Instalakuntzei buruzko 6. eranskineko euri-urei buruzko 2. atalean aldaketa berriei dagozkien eguneraketak egin beharko dira.
- Eskailera berrien ondoan eraikiko diren graden definizio zehatzago bat aurkeztu beharko da.
- Igogailuaren bi sarrera-irteeratan igogailuaren instalakuntzak eta erabiltzaileak euri-uretatik babestuko dituen estalpe bana gehitu beharko da.
- Transformazio zentroaren gaineko forjatuaren definizio zehatzagoa gehitu beharko da.
- 04.5 *Sekzio tipoak* planoko 5. sekzioaren irudi zuzena gehitu beharko da.>>

BOSGARRENA.- 2024ko irailaren 9an, udal ingeniari elektrikoak egindako oharretan adierazitakoa:

<< Memorian aipatzen dituzten argindar sareko eta argiteriako aldaketak ez dira 6. eranskinean eguneratuak azaltzen. Aldaketak, exekuzioari dagokion aldetik, txikiak dira eta teknikoki ez dute aldaketa handia suposatzen; hala ere, banatzaile enpresaz aldatzea bada aldaketa nabaria eta 6. eranskinean Iberdrolaren baldintza tekniko ekonomikoak atxikitzea beharrezkoa litzateke.>>

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Urbanizazio-proiektuak urbanizazio-obren xehetasun teknikoak zehazten dituzten obra-proiektuak dira. Behar besteko zehaztasunez idatzi behar dira, erredaktorea ez den beste teknikari baten zuzendaritzapean exekutatu ahal izateko.



II. Aplikatu beharreko legeria *kontuan harturik* ataleko bigarren puntuan zehazten dena da.

III. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194.3 artikuluekin bat etorriz, Urbanizazio Proiektuak honako agiri hauek bildu behar dituzte:

- Obren ezaugarriak deskribatzen dituen memoria.
- Proiektu- eta xehetasun-planoak.
- Neurketak.
- Aurrekontuak.
- Obra eta zerbitzuen baldintzen agiria.
- Segurtasun- eta kalitate-azterlanak, -programak eta -planak.

IV. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.1 artikulua ezartzen duenez, egikaritze-unitate batean dauden lursailen jabeek honako urbanizazio-karga hauek izango dituzte:

- Bide-lanak: galtzadak berdintzea, finkatzea eta zolatzea, espaloiak eraikitzea eta zintatzea, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna errazteko beharrezko obrak barne, eta bide edo espaloien lurpean zerbitzuetarako kanalizazioak eraikitzea.
- Saneamendu-obrak: kolektore orokorrak eta partzialak eraikitzea, hartuneak, estoldak, euri-uretarako hustubideak eta araztegiak, egikaritze-unitateari dagokion proportzioan.
- Ur-hornidurako zerbitzu publikoak instalatzeko eta funtzionatzeko obrak, besteak beste, edateko ura eta suteen aurkako ureztatze-ura eta ur-hartuneak etxean banatzeko zerbitzuak, eta energia-hornidurako zerbitzuak. Horien artean daude eroanbidea, banatzeko eraldaketa eta banaketa, bai eta argiteria publikoa, telekomunikazioak eta antolamenduak aurreikusitako beste edozein ere.
- Lorategiak eta zuhaitzak jartzeko obrak, bai eta hiri-altzariak, parkeak, lorategiak eta bide publikoak jartzeko obrak ere.
- Proiektu teknikoak idaztea eta nahitaezko iragarkiak argitaratzea antolamendu xehaturako eta urbanizazio eta birpartzelazio proiektuetarako beharrezkoak diren garapen-plangintzako tresnen administrazio-izapidetzean.
- Urbanizatzeko jarduketaren sustapen- eta kudeaketa-gastuak, urbanizatzailaren enpresa-onura barne, hala badagokio.
- Etxebizitza birkokatze eta jarduerak berriro instalatzeko kalte-ordainak eta gastuak, antolamenduaren egikaritzearen ondorioz eraitsi behar diren eraikin eta eraikuntzei dagozkienak, eskubideen jabe edo titularrei dagozkienak barne, baita antolamenduarekin bateraezinak direlako desagertu behar diren landaketa, obra eta instalazioei dagozkienak ere.
- Gauzatu beharreko hirigintza-antolamenduan edo jarduketa-programan berriaz hala aurreikusten denean, gainera, egikaritze-unitateetik kanpoko azpiegitura-obrak eta zerbitzuak, bai unitatearen sareak udaleko edo udalaz gaindiko sare orokorrekin behar bezala lotzeko, bai horien funtzionaltasuna mantentzeko, bai lursailen ezartzen zaizkien beste edozein karga osagarri jartzeko.



- Eragile urbanizatzaileari eta ondoriozko orubeen jabeei dagozkien urbanizazioa kontserbatzeko gastuak, administrazioak egindako obrak jaso arte.

V. Urbanizazio-proiektua egiteko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

VI. Prozedura honako hau da:

- A) Urbanizazio-proiektuaren lehen aldaketa izapidetzeko eta onartzeko ekimen pribatua aurkeztu eta udalak izapidetzeko onartu ondoren, udaleko zerbitzu teknikoek aurkeztutako proiektuaren berri emango dute.

Izapidetzen ari den espediente honetan, udaleko hirigintza buruak zein udaleko bi teknikariek aldeko txostena egin dute, baldintzak ezarriz.

- B) Alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikularekin bat etorriz, hasierako onespina emango dio Urbanizazio Proiektuari. Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, organo horri dagokio hasierako onspina ematea.

- C) Era berean, Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketa hasieran onetsi ondoren, jendaurrean jarriko da hogeit egunez, udaletxeko ediktu-oholean eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean iragarkia jarritz eta lurralde historikoan zirkulazio handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196.2 artikulua arabera. Halaber, eskuragarri egongo da Udalaren egoitza elektronikoan.

Hori guztia Urbanizazio Proiektuaren lurralde-eremuan dauden lursailen jabeei zitazio pertsonala eginda.

Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzan.

- D) Jendaurreko informazioa amaitutakoan eta alegazioak ikusita, Alkateak (kasu honetan, Tokiko Gobernu Batzarrak) behin betiko onartuko du Urbanizazio Proiektua, hasierako onspenaren ondorengo jendaurreko informazioaren izapidea amaitzen denetik bi hilabeteko epean.

Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, ulertuko da behin betiko onarpena administrazio-isiltasunez eman dela.

- E) Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da.



AZTERKETA JURIDIKOA

“24.1 lurramendi Pasealekua” azpiesparruaren inguruan aurkeztutako Urbanizazio-Proiektuaren lehen aldaketak aplikatu beharreko legean ezarritako zehaztapen materialak eta formalak betetzen ditu, beraz, egokia da hasierako onespena ematea.

Hala eta guztiz ere, kontuan izanik hirigintza buruak zein udal teknikariek egindako txostenetan jasotakoa, beharrezkoa izango da behin-betiko onespena eman aurretik proposatutako aldaketak Urbanizazio-Proiektuaren lehen aldaketako dokumentuan jasotzea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA 24 lurre esparruko “24.1 lurramendi Pasealekua” azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketari (2024eko uztailaren 9an aurkeztutako dokumentuari), honako baldintzarekin:

BEHIN BETIKO ONESPENA eman aurretik, zuzendutako dokumentua aurkeztuko da, aldaketa hauek barneratuko dituena:

1. Urbanizazio Proiektua zuzendu egin beharko da UJP-ren aldaketan jasotako faseetara egokitzeko.
2. GI-2130 errepidearen babes-eremuan egoteagatik GFAko Bide Azpiegituretako baimena beharko da.
3. Eskubanden diseinua 68/2000 dekretuaren 2. eranskineko 3.7 ataleko 4. eta 3.10 ataleko 2. puntuek ezarritakoa betetzeko egokitu beharko da.
4. Instalakuntzei buruzko 6. eranskineko euri-urei buruzko 2. atalean aldaketa berriei dagozkien eguneraketak egin beharko dira.
5. Eskailera berrien ondoan eraikiko diren graden definizio zehatzago bat aurkeztu beharko da.
6. Igogailuaren bi sarrera-irteeratan igogailuaren instalakuntzak eta erabiltzaileak euri-uretatik babestuko dituen estalpe bana gehitu beharko da.
7. Transformazio zentroaren gaineko forjatuaren definizio zehatzagoa gehitu beharko da.
8. 04.5 *Sekzio tipoak* planoko 5. sekzioaren irudi zuzena gehitu beharko da.
9. 6. eranskinean Iberdrolaren baldintza tekniko-ekonomikoak atxikitu beharko dira.

BIGARRENA.- Jakinarazpena egiten denetik gehienez ere hilabeteko epea ezartzea dokumentazioa zuzentzeko.



HIRUGARRENA.- Urbanizazio Proiektuaren lehen aldaketa hogeit egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuz, egoki irizitako alegazioak eta iradokizunak aurkez daitezzen. Interesdunen eskura egongo da, halaber, udal honetako iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan.

LAUGARRENA.- Ebazpena interesdunei zein eragindako lursailen jabeei zuzenean jakinaraztea.

6. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2024/1792 DEKRETUA: 2024/31 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2024/1792 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetzako Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Era-kundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, al-kateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren be-tebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko ho-nako faktura-zerrenda hau:

31. zenbaki duena, 678.105,90 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.



Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

31. zenbaki duena, 678.105,90 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Antton Rivero Urbistondo



Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2024/1793 DEKRETUA: 2024/33 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2024/1793 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erkundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkatetza aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

33. zenbaki duena, 286.448,52 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*



33. zenbaki duena, 286.448,52 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernuko Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Antton Rivero Urbistondo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2024/1913 DEKRETUA: 2024/34 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2024/1913 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:



2024KFAK0002

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erkundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, Alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

34. zenbakia duena, 86.653,75 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Alkateak

EBAZTEN DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

34. zenbakia duena, 86.653,75 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsua aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsuaren orde, edo errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsu hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:25ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0019-2024/09/17 akta/2024/09/17 akta ()